

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

2018/2019 ikasturtean euskara ikasi dutenek dirulaguntza eskatzeko deialdia.

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 23ko bilkuran, besteren artean 2018/2019an euskara ikasleentzako dirulaguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Errekurtsoak:

— Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

— Bestela, erabaki hau berraztertze eskatu ordez, edo berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Ondorioz oinarrien testu osoa argitaratzen da eta 2019ko ekainaren 24tik uztailaren 5era bitarteko (biak barne) epea ematen da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Usurbil, 2019ko maiatzaren 23a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (3625)

Euskara ikasleentzako dirulaguntza oinarriak

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenek alfabetatu daitezten bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2018-2019 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei bekak emateko.

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Convocatoria para la solicitud de subvenciones para el aprendizaje de euskera el curso 2018/2019.

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil, en sesión de 23 de mayo de 2019, acordó entre otros temas aprobar las bases de las subvenciones para estudiantes de euskera en 2018/2019.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa:

Recursos:

— Podrá interponer contra éste acuerdo el Recurso de Reposición correspondiente ante la Junta de Gobierno Local. Todo ello conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La persona solicitante podrá interponer dicho recurso en el plazo de un mes: contados a partir del día siguiente de la citada notificación.

— No obstante, alternativamente al recurso de reposición o en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. En ese caso deberá recurrirse en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

Por lo tanto, se publica el texto completo de las bases y se abre un plazo desde el 24 de junio al 5 de julio de 2019 (ambos inclusive) para que las personas interesadas puedan presentar las solicitudes de ayudas junto con toda la documentación correspondiente.

Usurbil, a 23 de mayo de 2019.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (3625)

Bases de las subvenciones para estudiantes de euskera

La Ordenanza de Euskera del Ayuntamiento de Usurbil establece en su artículo 39 que el Ayuntamiento adoptará las medidas adecuadas para que el euskera se utilice en todos los ámbitos sociales y, en general, para aumentar la presencia del euskera en la vida social. Para ello, de acuerdo con la ordenanza, uno de los medios es la difusión funcional del euskera, es decir aumentar y mejorar el número de personas vasco-parlantes, poner los medios para que los que no sepan euskera lo aprendan, y disponer los instrumentos adecuados para la alfabetización de las personas vasco-parlantes.

El Ayuntamiento de Usurbil considera muy importante incidir en la euskaldunización y alfabetización de las personas adultas. Por ello, ha dispuesto una partida presupuestaria para conceder becas a las personas residentes en Usurbil que hayan acudido durante el curso 2018-2019 a clases de euskaldunización.

1. artikulua. Xedea.

Ebazpen honen xedea da Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2018-2019 ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten usurbildarrei dirulaguntzak emateko. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

2. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira: Usurbilen erroldatuta dauden 16 urtez gorako euskara ikasleak.

Herritar batek ikastaroak irauten duen bitartean ematen badu erroldan alta edo baja, ikastaroak irauten duen bitartean erroldatuta egon den denboraren proportzionaltasunaren arabera izendatuko zaio dirulaguntza.

Onuradunek, dirulaguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- Gutxienez, ikastaro osoan zehar, % 80ko asistentzia izatea. (Autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).
- Gutxieneko aprobetxamendua gainditzea: (Euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa).

Onuradunek beti ere, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 14. artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak bete beharko dituzte.

3. artikulua. Diruz lagun daitezkeen ikastaroak.

Deialdi honen bidez 2018ko irailetik 2019ko abuztuaren 31 bitartean egindako ikastaroak diruz lagunduko dira. Nolanahi ere, udako ikastaroen kasuan, ikastaroa egin deneko urtean dirulaguntza eskatzeko aukerarik ez badago, posible izango da hurrengo urtean eskatzea.

Hauek dira diruz lagunduko diren ikastaroak:

- a) HABEk homologatutako ikastaroak. (2005eko uztailaren 27ko ebazpena eta 2013ko irailaren 12ko ebazpena).
 - Modulazio ezberdinetako ikastaroak.
 - Autoikaskuntza: sistema multimedien bidez bideratutako autoikaskuntzako ikastaroak.
 - EGA, alfabetatze ikastaroak, eta C2 mailakoak.
 - Udako ikastaroak eta Barnetegiak; ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako. Famili barnetegien kasuan, gurasoaren egoitza gastuen erdia lagunduko du diruz udalak.
- Xede berezietako ikastaroak (Merkatari taldeak eta guraso taldeak).
- b) Ikastaro ez homologatuak: Modulazio txikikoak, baina beti ere ikasturtean zehar urrats bat gainditzeko bada.

4. artikulua. Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen leketan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Dirulaguntza eskari normalizatua (I. eranskina).
- b) Eskatzailearen NANaren fotokopia.

Artículo 1. Objeto.

El objetivo de esta resolución es establecer las bases reguladoras de las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil, en régimen de concurrencia competitiva, destinadas a las personas de Usurbil que durante el curso 2018-2019 hayan realizado cursos de euskaldunización y alfabetización. Todo ello en base a lo dispuesto por la Sección I del capítulo III de la Ordenanza que regula las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil.

Artículo 2. Personas beneficiarias.

Serán consideradas personas beneficiarias las personas estudiantes de euskera, mayores de 16 años, que estén empadronadas en Usurbil.

Si durante el curso la persona beneficiaria se da de alta o baja en el empadronamiento, la subvención se le asignará según la proporcionalidad del tiempo que haya estado empadronada durante el tiempo que dure el curso.

Para percibir las ayudas, las personas beneficiarias deberán cumplir las siguientes condiciones:

- Estar empadronadas en Usurbil.
- Completar una asistencia mínima del 80 % a lo largo de todo el curso. (En el caso del autoaprendizaje, justificar el aprovechamiento).
- Superar el aprovechamiento mínimo: (deberá acreditarse mediante justificante emitido por el euskaltegi).

Las personas beneficiarias deberán cumplir todas las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley General 38/2003 de Subvenciones.

Artículo 3. Cursos subvencionables.

A través de esta convocatoria se subvencionarán los cursos realizados entre septiembre de 2018 y 31 de agosto de 2019. En cualquier caso, en el caso de los cursos de verano, si no existe la posibilidad de solicitar la subvención dentro del año que realice el curso, dicha subvención podrá solicitarla al año siguiente.

Se subvencionarán los siguientes cursos:

- a) Cursos homologados por HABE (Resolución del 27 de julio de 2005 y 12 de septiembre de 2013).
 - Cursos de distinta modulación.
 - Autoaprendizaje: Cursos de autoaprendizaje impartidos mediante sistemas multimedia.
 - EGA, cursos de alfabetización y del nivel C2.
 - Cursos de verano y barnetegis; no se concederán ayudas para gastos de alojamiento. En el caso de barnetegis familiares, el Ayuntamiento subvencionará la mitad de los gastos de alojamiento del progenitor/a.
 - Cursos para fines especiales (grupos de comerciantes, grupos de padres-madres).
- b) Cursos no homologados: De baja modulación, siempre que se avance un nivel a lo largo del curso y siempre que el euskaltegi sea homologado.

Artículo 4. Lugar de presentación de solicitudes y documentación a adjuntar.

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento en los impresos que el Ayuntamiento dispondrá al efecto. Asimismo, también podrán presentarse en los lugares mencionados por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Junto al impreso de solicitud se deberá presentar la documentación indicada a continuación:

- a) Impreso de solicitud normalizado (anexo I).
- b) Fotocopia del DNI de la persona solicitante.

- c) Matrikularen ordainagiria.
- d) Euskaltegiko ikastaroetan, Euskaltegiaren egiaztagiria, ikasleak, gutxienez, % 80ko asistentzia izan duela egiaztatzen duena eta gaitutako urratsa adierazten duena.
- e) Dirulaguntza autoikaskuntzarako eskatzen denean, autoikaskuntza egin den zentroaren ziurtagiria, aprobetxamendua erakusten duena.
- f) Xede bererako eskatutako edo jasotako bestelako dirulaguntzei buruzko aitortpena. (II. eranskina).
- g) III. eranskina: ikastaroaren ezaugarriak adierazten dituen.
- h) IV. eranskina: autoikaskuntza ikastaroari buruzko informazioa jasotzen duena (autoikaskuntzarako eskatzen denean).

Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Usurbilgo udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagirik aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

Usurbildarra izatearen baldintza Udalak berak egiaztatuko du Udal Erregistroaren bidez.

Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

Bestalde, udalak eskaerei buruzko informazio elkartrukea izan lezake HABErekin.

5. artikulua. Epeak.

Eskaria, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren, epe honen barruan egingo da: 2019ko ekainaren 24tik uztailaren 5era bitartean (biak barne).

Dirulaguntza Udako ikastaroren baterako eskatzen denean, Euskaltegiaren asistentzia ziurtagiria ikastaroa bukatutakoan ekarriko da Udalera.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikulua araberako, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

6. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaitutako ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.4200.480.335.00.01.2019.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketan bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

7. artikulua. Prozedura.

Soziokultura arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Soziokultura Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan. Ondoren, Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIA-

- c) Justificante de pago de la matrícula.
- d) En los cursos del euskaltegi, justificante emitido por el euskaltegi en el que se acredite un mínimo de asistencia del 80 % y se indique el nivel superado.
- e) Cuando la ayuda se solicite para autoaprendizaje, un justificante del centro donde se ha llevado a cabo el autoaprendizaje, que muestre el aprovechamiento.
- f) Declaración sobre las ayudas solicitadas y recibidas con el mismo objeto. anexo II).
- g) Anexo III: que recoge la información relativa al curso realizado.
- h) Anexo IV: Donde se recoge la información sobre el curso de autoaprendizaje (cuando la solicitud es para autoaprendizaje).

La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Usurbil, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

El requisito de ser vecino/a de Usurbil lo acreditará el propio Ayuntamiento mediante el Registro Municipal.

En cualquier caso, se podrá requerir a las personas solicitantes cuanta información complementaria resulte necesaria para valorar como es debido la ayuda solicitada.

Por otro lado, el Ayuntamiento podrá intercambiar información sobre las solicitudes con HABE.

Artículo 5. Plazos.

Una vez publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el anuncio de esta convocatoria de ayudas, las solicitudes se presentarán en el siguiente plazo: desde el 24 de junio al 5 de julio de 2019 (ambos inclusive).

Cuando se solicite la subvención para un curso de verano, se entregará el justificante de asistencia del euskaltegi al finalizar el curso.

Si la documentación presentada es incompleta o si no cumple con alguna de las condiciones estipuladas en las bases, la persona interesada dispondrá de un plazo de diez días hábiles para subsanar los errores o para incorporar la documentación correspondiente. Y se le indicará que, en base a los términos previstos en el art. 68.1 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.

Artículo 6. Importe de la subvención.

El importe total de las ayudas no superará la cantidad consignada en la partida.

El gasto irá a cargo de la presente partida presupuestaria: 1.4200.480.335.00.01.2019.

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. En caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación y concurrese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Usurbil.

Artículo 7. Procedimiento.

El personal técnico del área evaluará las solicitudes de subvención y se encargará de realizar un informe que se trasladará a la Comisión correspondiente. Una vez analizado el informe, se hará una valoración, tras la cual, la Comisión General de Subvenciones dictará una propuesta de resolución. A continuación

LEAN argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragar-
kia eta interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak aur-
kezteko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen
den biharamunetik kontatzen hasita. Azkenik, Tokiko Gobernu
Batzarrak emango du dirulaguntzei buruzko behin betiko ebaz-
pena gehienez ere, hiruhilabeteko epean eskaria aurkeztu izan
den egunetik zenbatuta. Behin betiko ebazpena Gipuzkoako AL-
DIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Aipatutako epea igaro ondoren ebazpenik eman ezean,
ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daite-
keen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere
behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren
berri emango da.

8. artikulua. Dirulaguntzen Batzorde Orokorra.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

– Alkatea.

– Dirulaguntzak banatzen dituen batzordeko lehendakaria
eta teknikaria.

– Udal idazkaria.

– Udal kontuhartzailea.

Dirulaguntza Batzorde Orokorren funtzioak, besteak bes-
te, hauek izango dira:

– Udal dirulaguntzak banatzeko irizpideak bateratzea.

– Dirulaguntzen legezketasuna bermatzea.

– Dirulaguntza bikoizketak ekiditea.

9. artikulua. Baloratzeko irizpideak.

Herritar guztiek matrikula kostuaren % 100 jasoko dute
(600 euroko mugarekin), baldintza hauek betetzen badituzte:

– % 80ko asistentzia izateagatik.

– Gutxieneko aprobetxamendua.

Pertsona bakoitzak udaletik dirulaguntzetan, gehienera jota
600 euroko dirulaguntza jasoko du. Aipatutako portzentajeak
gutxitu egin daitezke aurkeztutako eskaeraren arabera. Hau da,
dirulaguntzetarako dagoen dirua baino eskaera handiagoa ba-
da, proportzionaltasunaren irizpidea aplikatuko da.

Nolanahi ere, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako
herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango da.

10. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.

Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jaki-
narazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango
dira, halaber, Ordenantzaren 12. artikuluan aipatzen diren as-
pektu guztiak.

Udako ikastaroen kasuan, dirulaguntzaren ordainketa bal-
dintzatuta egongo da dagozkion agiriak aurkeztera (ordainagiria
eta asistentzia datuak).

11. artikulua. Betebeharrak.

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Usurbilgo
Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. arti-
kuluak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Bes-
teak beste, ondorengo hauek:

a) Dirulaguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beha-
rreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta Esku-har-
tzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kon-
tuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten
bestelako organoen jarduketei ere.

se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el anuncio relativo
a la propuesta de resolución y la persona interesada tendrá un
plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a la publicación
del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa para presentar las
alegaciones oportunas. Finalmente, en Junta de Gobierno Local
se dictará la resolución definitiva relativa a dichas subvencio-
nes, en un plazo máximo de tres meses a partir de la fecha en
que se ha presentado la solicitud. La resolución definitiva se pu-
blicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Si transcurrido dicho plazo no se hubiese producido ninguna
resolución, debe entenderse que la solicitud ha sido rechazada,
sin perjuicio de la resolución que pudiera sobrevenirse.

En el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página
web www.usurbil.eus también se dará cuenta de la propuesta
provisional y de la resolución definitiva.

Artículo 8. Comisión General de Subvenciones.

La Comisión General de Subvenciones está compuesta por:

– El Alcalde.

– La presidenta y la técnica de la comisión encargada de
distribuir las subvenciones.

– La secretaria municipal.

– El interventor o interventora municipal.

Las funciones de la Comisión General de Subvenciones son
las siguientes:

– Unificar los criterios para la distribución de las ayudas mu-
nicipales.

– Garantizar la legalidad de las subvenciones.

– Evitar duplicidades en la subvención.

Artículo 9. Criterios de valoración.

Todas las personas solicitantes recibirán la ayuda del 100 %
del costo de la matrícula (un máximo de 600 euros), debiendo
cumplir los siguientes requisitos:

– El nivel mínimo de asistencia será del 80 %.

– Acreditar el aprovechamiento mínimo.

Cada persona recibirá un máximo de 600 euros en ayudas
del Ayuntamiento. Esos porcentajes pueden disminuir aten-
diendo al número de solicitudes que se presenten. Es decir, si
las solicitudes superasen la cantidad prevista para las subven-
ciones, se aplicará el criterio de proporcionalidad.

No obstante, se podrán considerar otros criterios de interés
municipal que no han sido valorados en los criterios anteriores.

Artículo 10. Abono de la subvención.

Tras comunicar la concesión de la subvención definitiva, se
tramitará su abono. Y se tendrán en cuenta, también, todos los
aspectos que se recogen en el artículo 12 de la Ordenanza.

En el caso de los cursos de verano, el abono de la subven-
ción estará condicionado a la presentación de la documentación
correspondiente (justificante de pago y datos de asistencia).

Artículo 11. Requisitos.

Las personas a las que se les hayan otorgado las ayudas re-
cogidas en esta convocatoria deberán cumplir los requisitos es-
tablecidos en el artículo 6 de la Ordenanza reguladora de las
ayudas del Ayuntamiento de Usurbil. Entre otros, los siguientes:

a) El sometimiento a las actuaciones de comprobación a
efectuar por el Ayuntamiento de Usurbil, y a las de control finan-
ciero que corresponden a la Intervención, y a las previstas en la
legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y otros órga-
nos que tengan atribuida dicha competencia.

b) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.

c) Dirulaguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero –objektiboa nahiz subjektiboa izan–, dirulaguntza eskaini duen organoari aldaketa horren jakinaren gainean jartzea.

d) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea, Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitorpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

Bestalde, udal betebeharrak dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

12. artikulua. Araudi osagarria.

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

b) Comunicar a la entidad concedente la obtención de otras subvenciones para la misma finalidad procedentes de otra administración o ente público, estatal o internacional.

c) Comunicar a la entidad concedente cualquier modificación, objetiva o subjetiva, que se produzca en alguno de los apartados tenidos en cuenta para la concesión de la subvención.

d) Tener conocimiento de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, según lo establecido en las disposiciones vigentes, en las que se incluyen las establecidas por el Ayuntamiento de Usurbil.

Para ello, las personas solicitantes manifestarán en la declaración escrita hallarse al corriente de sus obligaciones para con la Seguridad Social o que cumplen con aquellas otras obligaciones referidas al ámbito de la Hacienda.

Por otra parte, con relación a las obligaciones del Ayuntamiento, el mismo, de oficio, podrá recabar los certificados correspondientes.

Artículo 12. Normativa complementaria.

En lo no dispuesto en esta convocatoria se estará a la regulación contenida en la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil y a lo dispuesto en la Ley 38/2003 reguladora de Subvenciones de la Administración Pública.



Usurbilgo Udala

I. Eranskina

DIRULAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA	2019
-------------------------------------	-------------

DATUAK

Izen-abizenak:		
Helbidea:		
Herria:		PK:
Telefonoa:	E-maila:	NAN:

Neure izenean edo.....reanean.

ADIERAZTEN DUT

2018/19 ikasturtean:

Euskara ikasten ibili naiz.

Hori dela eta, Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak maiatzaren 23ko Bilkuran onetsitako euskara ikasleentzako dirulaguntza oinarrietan jasotakoari eta Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzak dioenari jarraituz:

ESKATZEN DUT

Dagokidan dirulaguntza ematea.

ERANSTEN DITUDAN AGIRIAK

- NAN fotokopia.
- Matrikularen ordainagiria.
- Udalaz kanpoko dirulaguntzarik jasotzen den edo ez adierazten den agiria. (II. Eranskina)
- III. Eranskina, egindako ikastaroari buruzko informazioa jasotzen duena. Euskaltegiak ziurtatua.
- IV. Eranskina, autoikaskuntza ikastaroari buruzko informazioa jasotzen duena.
- Beka ordaintzeko kontua (20 digitu + IBAN): _____

Usurbil, 2019ko _____ren ____a

Sinadura



Usurbilgo Udala

II. Eranskina

USURBILGO UDALAZ KANPOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO AITORPENA

DATUAK

Izen-abizenak:		
Helbidea:		
Herria:		PK:
Telefonoa:	E-maila:	NAN:

AITORTZEN DUT

- Ez dudala Usurbilgo Udalez kanpoko dirulaguntzarik eskatu. (Dirulaguntza eskaera honekin lotura duena.)
- Dirulaguntza hau eskatu dudala edo eskatzea aurreikusten dudala:
Erakundea:
Diru-kopurua:

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbil, 2019ko _____ren ___a

Sinadura



Usurbilgo Udala

III. Eranskina

EUSKALTEGIAREN ZIURTAGIRIA

EUSKARA IKASTAROA: ASISTENTZIA ETA APROBETXAMENDUA*

Honen bidez ziurtatzen dut, _____ k
_____ Euskaltegian asistentzia eta aprobetxamendu hau izan duela:

Ikastaroaren izena:		
Euskaltegia:	Ordu-kopurua:	
Hasiera data:	Amaiera data:	
Hasierako maila:	Amaierako maila:	
Ordaindutako matrikula:		
Asistentzia: jasotako ordu-kopurua:		Asistentzia: jasotako ordu-kopurua ehunekotan:
Aprobetxamendua: <input type="checkbox"/> Ona <input type="checkbox"/> Eskasa <input type="checkbox"/> Txarra		

Usurbil, 2019ko _____ ren ___ a

Euskaltegiaren sinadura

* Euskaltegiak bete beharreko agiria.



Usurbilgo Udala

IV. Eranskina

EUSKALTEGIAREN ZIURTAGIRIA

EUSKARA IKASTAROA: AUTOIKASKUNTZAKO ASISTENTZIA ETA APROBETXAMENDUA *

Honen bidez ziurtatzen dut, _____k
_____ Euskaltegian egindako autoikaskuntza ikastaroak asistentzia
eta aprobetxamendu hau izan duela:

Ikastaroaren izena:	
Euskaltegia:	Ordu-kopurua asteko (batz bestekoa)
Orduak orokorrean:	Mintza eskolak zenbat:
Aholkularitza saioak zenbat:	Orotara orduak (programa+eskolak+aholkularitza)
Hasiera data:	Amaiera data:
Hasierako maila:	Amaierako maila:
Ordaindutako matrikula:	
Asistentzia: jasotako ordu-kopurua:	Asistentzia: jasotako ordu-kopurua ehunekotan:
Aprobetxamendua: <input type="checkbox"/> Ona <input type="checkbox"/> Eskasa <input type="checkbox"/> Txarra	

Usurbil, 2019ko _____ren ____a

Euskaltegiaren sinadura

Euskaltegiak bete beharreko agiria.



Usurbilgo Udala

Anexo I

IMPRESO DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN	2019
---	-------------

DATOS

Nombre y apellidos:		
Dirección:		
Población:		CP.
Teléfono:	E-mail:	DNI:

en mi nombre o en representación de

DECLARO

El curso 2017/18:

He asistido a clases de euskera.

Por esa razón, y de acuerdo con lo recogido en las bases de las subvenciones para el aprendizaje del Euskara aprobadas por la Junta de Gobierno Local el 23 de mayo y conforme a lo establecido en las Ordenanzas reguladoras de las Subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil:

SOLICITO

Que se me conceda la subvención que me corresponde.

DOCUMENTOS ADJUNTOS

- Fotocopia del DNI.
- Justificante de pago de la matrícula.
- Documentación que acredita haber recibido o no alguna subvención al margen de la del Ayuntamiento (Anexo II).
- Anexo III, que recoge la información relativa al curso realizado. Acreditado por el euskaltegi.
- Anexo IV, que recoge la información relativa al curso de autoaprendizaje por el euskaltegi.
- Número de cuenta para el abono de la beca (20 dígitos+IBAN):

En Usurbil, a ___ de _____ de 2019

Firma



Usurbilgo Udala

Anexo II

DECLARACIÓN SOBRE SUBVENCIONES AJENAS AL AYUNTAMIENTO DE USURBIL

DATOS

Nombre y apellidos:		
Dirección:		
Población:	CP:	
Teléfono:	E-mail:	DNI:

DECLARO

Que al margen de la del Ayuntamiento de Usurbil no he solicitado subvención alguna relacionada con la solicitud presentada.

He solicitado o tengo previsto solicitar la siguiente subvención:

Entidad:

Cantidad:

Para que así conste, firmo el presente documento.

En Usurbil, a ___ de _____ de 2019

Firma



Usurbilgo Udala

Anexo III

CERTIFICADO DEL EUSKALTEGI

CURSO DE EUSKARA: ASISTENCIA Y APROVECHAMIENTO*

Por la presente certifico que en el euskaltegi _____ don/doña
_____ ha tenido el siguiente
aprovechamiento:

Nombre del curso:	
Euskaltegi:	Número de horas:
Fecha de inicio:	Fecha de finalización:
Nivel inicial:	Nivel final:
Matrícula abonada:	
Asistencia: número de horas lectivas:	Asistencia: porcentaje de horas lectivas:
Aprovechamiento: <input type="checkbox"/> Bueno <input type="checkbox"/> Regular <input type="checkbox"/> Malo	

En Usurbil, a ___ de _____ de 2019

Firma del Euskaltegi

* Documento a cumplimentar por el Euskaltegi.



Usurbilgo Udala

Anexo IV

CERTIFICADO DEL EUSKALTEGI

CURSO DE EUSKARA: ASISTENCIA Y APROVECHAMIENTO DEL AUTOAPRENDIZAJE*

Por la presente certifico don/doña _____ ha
tenido la siguiente asistencia y aprovechamiento en el curso de aprendizaje realizado en el euskaltegi
_____.

Nombre del curso:	
Euskaltegi:	Número de horas por semana (promedio):
Horas en general:	Número de horas de práctica oral:
Número de sesiones de asistencia:	Número total de horas (programa+clases+asistencia)
Fecha de inicio:	Fecha de finalización:
Nivel inicial:	Nivel final:
Matrícula abonada:	
Asistencia: número de horas lectivas:	Asistencia: porcentaje de horas lectivas:
Aprovechamiento: <input type="checkbox"/> Bueno <input type="checkbox"/> Regular <input type="checkbox"/> Malo	

En Usurbil, a ___ de _____ de 2019

Firma del euskaltegi

* Documento a cumplimentar por el Euskaltegi.